Arizmendi ikastola
arrasate Herri Eskola
Mesedeetako Andra Maria IKASTETXEA

57. alea
2009-Martxoa

HEZKIDETZAN
Pausoz pauso

Paso a paso
En la COEDUCACIÓN



57 57

1., 2. eta
3. maila

# Emakumeak plazara

## Ezagutzen dituzu emakume hauek?

Kaixo! Bessie Head idazlea naiz.
Hegoafrikan jaio nintzen. Ipuin asko idatzi ditut "altxorren bildumazalea: eta Botswanako beste ipuin batzuk" adibidez



*Nire esaldi bat: " izarretaraino eskailera bat eraikitzen ari naiz. Horregatik idazten dut"*

Kaixo! Elena Odriozola naiz.
Ilustratzailea naiz. Euskal Herrikoa naiz. Ilustratzaileok marrazkien bidez istorioak kontatzen ditugu. Idazleen hitzak marraziekin esaten ditugu.



## Zer adierazten digu nire marrazki honek?



"Marte eta printzesa hegalariak"

## Orain ilustratzaileetara jolastuko gara!

Nola marraztuko zenuke esaldi hau? Marraztu laukitxoan
"IZARRETARAINO ESKAILERA BAT ERAIKITZEN ARI NAIZ"



Kaixo Camille Claudel naiz. Eskultorea naiz. Frantziakoa naiz. Eskultura asko egin ditut eta nire obrek mundu osotik bidaiatu dute.

## Nire eskultura bat



### Eskultoreak izateko prest?

Honetarako jolas txiki bat proposatzen dizuegu.
4 pertsonako taldeak osatuko ditugu. Pertsona bat eskultorea izango da eta begiak estalita izango ditu. Bigarren pertsona bat eskultorearen laguntzailea izango da. Beste pertsona bat eskultura izango da. Pertsona hau nahi duen gorputz jarrerarekin kokatuko da eta kopiatu beharreko eskultura izango da. Laugarren pertsona bat zizelkatu beharreko harria izango litzateke.
Prozedura: Eskultoreak begiak estalirik eta ukimenaren bidez "eskulturaren" jarrera asmatu beharko du eta "zizelkatu beharreko harria" gurputz jarrera berdinean kokatu beharko du. Espaziotik mugitzeko "laguntzailearen" laguntza izango du( Paperak aldatzen joango gara guztiak

Kaixo Alexandriako Hipatia naiz.
Matematikaria, filosofoa eta astronomoa naiz.
Nire asmakisunen artean izarrak bilatzeko tresna bat dago: Astrolabioa du izena.



## Izarren bila...

Zenbakiak elkartzean konstelazioak aurkituko dituzu. Animo!




margotu eta ebaki

# HELDUEN TXOKOA

### Testu liburuak eta curriculum ezkutua

*Esaten ez denaren garrantzia*

Euskarazko ikasliburuetan emakumeek baztertuta jarraitzen dute, irudietan zein testuetan, nahiz eta curriculumak genero ikuspegia landu behar dela azpimarratzen duen. Hainbat neurketa egin dira. Aro eta lan guztiak aintzat hartuz, gizonak %80 inguru dira. Emakundek ez du, azken urteotan, gaiari buruzko azterketa zehatzik egin, baina 1990eko Testu liburuen bidez zabaltzen al ditugu sexu-baloreak? lanean, esaterako, pertsonaia femeninoak %26 zirela aipatzen da. Espainiako Emakumearen Institutuak, 2000, urtean hainbat liburu aztertu zituen, tartean euskarazkoak. Datuak: politikarien artean %13 dira emakumeak; artistak, %6; eta zientzialariak, %1.

### Los libros de texto y el curriculum oculto

*La importancia de lo que no se dice*

En los libros de texto en euskara las mujeres siguen estando marginadas tanto en las imágenes como en los textos, a pesar de que el currículum subraya que se debe trabajar la perspectiva de género. Se han hecho varias mediciones. Tomando en cuenta todas las épocas y trabajos, los hombres ocupan un 80%. Emakunde no ha publicado ningún trabajo al respecto recientemente, pero en el trabajo de 1990 "¿Transmitimos valores sexistas a través de los libros de texto?", por ejemplo, se recoge que los personajes femeninos eran el 26%. El Instituto Español de la Mujer publicó varios trabajos en el año 2000, entre ellos algunos en euskera. Datos: entre las personas políticas un 18% son mujeres; artistas un 6%; científicas el 1%.

Koordinatzailea:
urtxintxa eskola
Babeslea:
ARRASATEKO UDALA